



## UDALBILTZAKO PARTZUERGOKO KONTSEILU NAGUSIA

### 2019ko URTARRILAREN 25ean BURUTUTAKO BATZARRA:

#### LABURPENA

1.- Aurreko Kontseilu Nagusiko akta onartu da bilkura honen lehenengo puntuan.

2.- 2018an landutako proiektuei buruzko azalpena eman da bigarren puntuan, eta 2019an lantzeko asmoa dagoena azaldu eta onartu.

Azpimarratzeko:

- Partzuergokide den herri bakoitzari mapa turistikoan agertuko den fitxa bidaliko zaio betetzeko.
- Espainiako Konstituzioari buruzko “40 urte, 40 gezur” kanpainaren karira egindako erakusketa eskatzen duen partzuergokidearen herrian erabil daiteke.
- Herri sarreretan jartzeko seinaleak egiten ari dira azkartasunez kudeatzeko. Interesa duen herria teknikarien bidez jar daiteke harremanetan.
- Proiektu guztien batzordeak interesa duen edonorentzat zabalik daude.

3.- 2019rako kuotak, Partzuergorako eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondorako aurrekontuak eta berauek gauzatzeko araua hasiera batez onartu da laugarren puntuan.

4.- 2019ko egutegia onartu da bosgarren puntuan.

5.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman da seigarren puntuan.



6.- Sara, Azkarate, Liginaga, Izura, Uztaritze eta Ozazek partzuergoko kide izateko eman beharreko urratsen azken zehaztapenak eman dira zazpigarren puntuan.

7.- Maiatzaren 3an arratsaldeko 18:00etan Kontseilu Nagusia izango dela jakinarazi da azken puntuan.



## UDALBILTZA PARTZUERGOAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZARRALDIKO AKTA

Oiartzungo Udalean, bi mila eta hemeretziko urtarrilaren 25ean, arratsaldeko 18'03ak direnean bigarren deialdian bildu egin dira ondoren zerrendatzen diren udaletako ordezkariak, zeintzuk alde zurretik beren izendapena aurkeztu baituten.

### Bertaratutako Udalak:

	<b>UDALA</b>
1	Alegia
2	Altzo
3	Antzuola
4	Arakaldo
5	Asteasu
6	Astigarraga
7	Ataun
8	Atxondo
9	Basaburua
10	Berriatua
11	Berrobi
12	Dima
13	Errigoiti



14	Etxalar
15	Gatika
16	Goizueta
17	Hernani
18	Leitza
19	Mañaria
20	Oiartzun
21	Segura
22	Usurbil

Ez dira bertaratu ondoko udalak: Aduna, Aizarnazabal, Ajangiz, Amoroto, Anoeta, Araitz, Aramaio, Arantza, Arbizu, Areso, Arratzu, Artea, Aulesti, Bakaiku, Barrundia, Bera, Berastegi, Ea, Elduain, Ergoiena, Etxauri, Ezkio, Ibarra, Irura, Itsasondo, Iturmendi, Lakuntza, Larrabetzu, Leaburu-Txarama, Legutio, Lezo, Lizartza, Markina- Xemein, Meñaka, Mendaro, Munitibar, Muxika, Olazti, Ondarroa, Oñati, Oresa, Otxandio, Uharte-Arakil, Urdiain, Zaldibia, Zerain, Zestoa, Ziordia, Ziortza-Bolibar, Zizurkil, Zubieta.

Piero Rouget jaunak Uztaritzeko Herriko Etxearen izenean parte hartu du gonbidatu gisa; hitzarekin baina botorik gabe.

Luis Intxauspe lehendakari jaunak zuzendu du bilkura.

Udalbiltzako zuzendari bezala, hitzarekin baina botorik gabe Arantza Ruiz de Larrinaga andereak hartu du parte.



Udalbiltzako teknikari bezala, Argitxu Etxandi andereak eta Arkaitz Almortza eta Inhar Iraizotz jaunek hitzarekin baina botorik gabe parte hartu dute.

Parte hartu eta ekitaldiaren fede ematen du Udalbiltza Partzuergoko idazkaria den Eguzkiñe Aiesa andreak.

Quoruma dagoela ziurtatzean, bilerari hasiera eman zaio, honako edukiak landuz:

#### **LEHENA.- Aurreko akten onarpena:**

Luis Intxauspe lehendakariak egin du puntu honen azalpena.

Zuzenketarik proposatu ez denez, aurreko bilkurako akta aho batez onartua izan da.

#### **BIGARRENA.- 2018ko urtearen balorazio orokorra.**

Lehendakari jaunak egin du puntu honen hasierako azalpena, Batzorde Eragileko kide den Jabi Asurmendi jaunaren eta zuzendari andrearen laguntzaz. Honako puntua hirugarrenarekin batera (“abian dauden proiektuen berri eman eta 2019ko plangintzaren onarpena”) landu da, proiektu bakoitzarekin 2018an zehar egindakoa eta 2019rako proposatzen dena azalduz.

- 1) Ikerbiltza: 2018an energia burujabetza, gizarte ekonomia eta elikadura burujabetzaren inguruan lanketak egin eta Ipar Euskal Herrian jarduteko aukerak aztertu egin dira.  
2019ra begira, bide beretik joatea proposatzen da.
- 2) Hurbiltzen: 2018an Hurbiltzen Batzordea osatu da eta bertatik landu dira lau Uharteen arteko harremanak, Itsasu-Etxaurik besteak beste gereziaren



inguruan duten senidetzea eta gainerakoak, hala nola, esperientzia ezberdinak trukatzeko Uhartan ospatu ziren Hurbiltzen jardunaldiak, Emakume Errugbilarien II. Topaketa, Iparra-Hegoa jaialdian presentzia eta beste.

2019rako jardunaldiak errepikatzea, lau Uhartean lanketarekin jarraitzea eta Sartaguda eta Asteasuren artean dagoen harremana ere estutzeko saiakera egingo da, memoria historikoaren inguruko topaketa bat antolatuz agian.

- 3) Hartu-eman, esperientzien bankua: Pasa berri den urtean zehar proiektua lantzeko batzordea osatu eta egitasmoa zehatzean definitu egin da.

2019an plataforma informatikoa sortu, edukiz hornitu eta hedapena egiten hasia da asmoa.

- 4) Lurgida, Euskal Herriko mapa turistikoa: Aurreko egitasmoarekin egin bezala, batzordea eratu eta proiektuaren nondik norakoak definitzen eman da 2018a.

2019ari begira, baliabide teknologikoak eta edukiak lantzea da asmoa. Edukien artean, ondare inmaterialari eta etxaldeein ematen ari zaie garrantzia berezia. Partzuergokideak diren herriekin lantzen hasia da proposamena, beraz, **partzuergokide den herri bakoitzari mapan agertuko den fitxa bidaliko zaio betetzeko**. Asurmendi jaunak esan duenez, proiektuak legedia aldetik arazoak azaltzen dituela eta, nahi baino motelago doa lanketa.

- 5) Euskal Herriko historiaren memoria gunea: 2018an zehar komunikazio plana egin da Mondragon Unibertsitateko zenbait ikaslerekin batera, hogeita bi mugarriak izango diren bideoak egin dira. Proiektu honetan ere nahi baino motelago doa lanketa, prest zegoen terrenoan eraikitzeko agertzen ari diren arazo batzuk direla medio. Ordea, 2019an inauguratzea da helburua, beraz, horretarako beharrezko lanak egitea aurreikusten da (arkitektoen planoak, eskultura hautatzeko prozesua, kontratazioak...). Ondoren, sustapen lanak



egin beharko dira.

- 6) Euskal Herriko Nortasun Agiria: Eragile eta alderdien babesa biltzea da oraingo asmoa, iraila bitartean aurrean guztiak egiteko. Irailtik aurrera agiriak egiten eta erabilera sustatzen hasten diren proiektuei laguntza tekniko eta ekonomikoa ematea da funtsa. Iraila aldera aurkeztutako proiektuei laguntzeko tutoretza eta maileguak emateko aukera prest egotea aurreikusten da.
- 7) Herrien garapena, Pirinioak +: 2015 urtean egindako proiektuaren jarraipena izan nahi du proiektuak. Koop 57rekin batera, 2019an beste zehaztasun eta ezaugarri batzuekin programa martxan jartzeko lantzen ari da: ezartzen diren baldintzak beteta aurkeztu diren proiektuei laguntza tekniko eta ekonomikoa ematea da funtsa. Iraila aldera aurkeztutako proiektuei laguntzeko tutoretza eta maileguak emateko aukera prest egotea aurreikusten da.
- 8) 40 urte, 40 gezur kanpaina: 2018 urte bukaeran, Espainiako Konstituzioaren 40. urteurrena zela eta egindako kanpaina izan zen, Espainiako Konstituzioak jasotzen dituen 40 gezur bilduz bi erakusketa barnebiltzen dituen. Abendu hasieran Iruñean egin zen aurkezpen ekitaldia. Bertan Iruñeko Udalak eta alkateak parte hartu zuten. **Erakusketa** hainbat herritatik pasa da dagoeneko, eta 2019an zehar **eskatzen duen partzuergokidearen herrian erabil daiteke, eskaerak teknikarien bidez egin daitezke.**
- 9) Seinalitika: Legegintzaldi bukaera izanda, zenbait herritako sarreran jarri ahal izateko seinaleen lanketa egiten ari da. Asmoa nahiko azkar gestionatzea da, beraz, interesa duen edozein partzuergokidek adierazi dezake.
- 10) Harremanak: Gainerako instituzioekin harremanak normaldu eta elkarlana bilatzea zen 2018rako helburua. Harreman asko egin da, baina denek ez dute espero zitekeen emaitza eman. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bai egin dira hitzarmenak, baina gainerako aldundiekin ez.  
Gizarte eragileen kasuan, hainbat eragilerekin hitzarmenak egin dira eta beren proiektuen sustapenerako diru-babesa eman zaie: Euskal Moneta, AZIA gazte elkarteak, Iparra Hegoa / Elorripe, Argantzungo ikastola, Sortzen, I-



ener, Mugak Apurtu, Zinka Bizirik eta Orreaga 778. Horretaz gain, 40 ekitaldi baino gehiagotan parte hartu du 2018an Udalbiltza Partzuergoak.

Nazioarteko harremanei dagokienean, harreman nagusia Catalunyako AMIrekin izan da: AMIk 2018ko aberri eguneko bi deialdietan (Iruñea eta Donibane Garazi) eta 40 urte 40 gezur kanpainako hasiera ekitaldian parte hartu zuen eta Udalbiltza Partzuergoak Printzerriko Diadan.

Aurreko guztia esanda, kuotez gain Udalek beren intereseko proiektuak sustatu ahal izateko finantzaketa osagarriaren sistema ere martxan jartzeko asmoa dagoela gogorarazi du zuzendari andreak.

Eztabaida eta ekarpenerako tartea zabaltzerakoan, Errigoitiko ordezkariak EHNaren proiektua berrabiarazteko asmoa dela eta poza agertu du. Zuzendaritzatik proiektua lehenengo sei hilabeteetan lantzeko asmoa dagoela erantzun da, hauteskunde urtea izanda, hedapena hautetsiekin batera egin ahal izateko.

Ataungo ordezkariak Sara eta Ataunen inguruko senidetze egitasmoari buruz galdetu du. Ataungo udala Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero zabaltzen duen "Elkarrekin" diru-laguntza deialdira aurkeztu zela erantzun du Etxandi andreak. Deialdi honetan parte hartuz, helburua zen Sararekiko lotura indartzea, senidetza arlo sozio-ekonomikoari lotuz. Udalbiltzatik horretan laguntza eskaini zaie bi herriei, Ekai Center Fundazioarekin lankidetzan. Helburua da zehazki lehenengo sektorearen inguruko diagnosia egitea bi herrietan eta ondoren tokiko ekoizpenak balioan jartzeko eta herritarrak bertako kontsumoari buruz sentsibilizatzeko aplikazioa sortzea. Aplikazio horretan agertuko lirateke Sara eta Ataungo baserriak eta saltzen dituzten ekoizpenak; gerora begira on-line denda bat ere sortzeko aukera legoke. Horretan ari dira hain zuzen : diagnostikoa osatu da eta bilera egin da informatika enpresarekin. Behin hori bukatu eta egitasmoaren gizarteratze lana egingo da urtean zehar.





Plangintza bozkagai jartzerakoan, aho batez izan da onartua.

**LAUGARRENA.- 2019ko kuoten, aurrekontuen eta aurrekontuak gauzatzeko arauaren hasierako onarpena.**

Zuzendari andreak Partzuergoaren kasuan proposatzen den aurrekontua 472.950 eurotako eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa erakunde autonomoaren kasuan 6.500 eurokoa dela nabarmendu du. Ondoren emailaz bidalitako dokumentazioaren gainean nondik norako nagusien azalpena egin du. Zailtasun ekonomikoak gainditu eta 2018a beste lasaitasun batekin bukatu eta 2019a ere hobe hasiko dela azpimarratu du.

Nabarmentzeko, aurreko puntuan Koop 57rekin batera lantzea onartu den Pirinioak + proiekturako, Euskal Garapen eta Kohesio Fondoko aurrekontua 40.000 euro ingururaino igotzeko beharra izango dela adierazi du zuzendari andreak, legeak direla eta, hasiera batetik kopuru guztia aurreikusteko aukerarik ez badago ere. Diru hori Euskal Kohesio eta Garapen Fondoak duen gerakinetik hartzea proposatu du.

2015ean gertatu zela eta, hauteskunderen ondoren gobernu aldaketak eman eta ekipo berriak sar daitezkeenez, aurtengo kuotak hauteskunderen aurretik ordaintzeko eskaera egin da, kuota kopuru handiak galdu baitziren 2015ean.

Galdera edo ekarpenik dagoen galdetuta ezezkoa erantzuten denez, honako akordioa hartzea proposatu du Luis Intxauspe lehendakariak:

Lehen.- 2019ko aurrekontua eta honen gauzatzeko araua hasieran onartzea:

<b>SARRERAK</b>					
<i>Kapituluak</i>				<i>UDALBILTZA</i>	<i>EGKF</i>
				<i>PARTZUERGOA</i>	
4	Toki Entitateer Administrazio Orokorreko Transferentziak			472.950	500
8	Finantza aktiboak				6.000
	GUZTIRA / TOTAL			472.950	6.500
<b>GASTUAK</b>					
<i>Kapituluak</i>	<i>Izena</i>			<i>UDALBILTZA</i>	<i>EGKF</i>
				<i>PARTZUERGOA</i>	
1	Langileria Gastuak			260.250	0
2	Ondasun Arruntak eta Zerbitzu Gastuak			149.350	6.000



3	Finantza Gastuak	1.000	500
4	Transferentzia Arruntak	58.500	0
6	Inbertsio Errealak	3.850	0
GUZTIRA		472.950	6.500

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu eta 15 egunetan jendaurrean jartzea.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik jasoko ez balitz aurrekontua behin betiko onartutzat jotzea, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Gaia bozketara jarrita, aho batez onartu da.

#### **BOSGARRENA.- Egutegiaren aurkezpena.**

Lehendakari jaunak urteko jai egunei buruzko azalpena egin du. Aurreko urtean bezala, Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian izango diren jai egun kopurua berdindu dela nabarmendu da, horretarako hiru lurralde juridiko-administratiboetako egutegiak aztertu, zenbait jai egun kendu eta beste batzuk komunak jarritz. Hala, lurralde juridiko-administratibo bakoitzak berea du eta zortzi komun.

2019rako proposatzen den egutegia onartzea erabaki da aho batez.



### **SEIGARRENA.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman.**

Idazkari andreak azkeneko Kontseilu Nagusiaz geroztik lehendakaritzak emandako ebazpenen laburpena jasotzen duen zerrenda emailez bidali zela gogorarazi du.

Hitzen tartea zabaldua ez da ekarpenik egon.

### **ZAZPIGARRENA.- Partzuergokide berrien onarpena. Sara, Azkarate, Liginaga, Izura, Uztaritze eta Ozazeren kasuak.**

Etxandi andreak egin du puntu honen azalpena. 2017an partzuergoan sartzeko interesa agertu zuten herriekin lehen harremanak egin ziren. 2018ko urtarrileko Kontseilu Nagusian Ipar Euskal Herrirako Herriko Etxeen kuota onartu zen, beharrezko urrats bezala.

Herriko Etxeak Partzuergoan sartzeko prozedura konplexua da, hainbat legedi uztartu behar direlako: espainola, frantsesa eta europarra. Sarak, Azkaratek, Liginagak, Izurak, Uztaritzek eta Ozazek kide izateko eskaera egin zioten partzuergoari, beren udalbatzetan gehiengo osoz onartu eta gero. Ondoren Partzuergoaren eta Herriko Etxe bakoitzaren arteko hitzarmena egin da, Baionako Itunak hala eskatzen baitu. Hitzarmen hauek zehazten dutenez, partzuergoan egoteko iraupena hamar urtekoa da kasu guztietan, Uztaritzeren kasuan ezik, bost urtetara jaitsi dena azken honen eskariz. Gero berriro Udalbatzatik pasa zen hitzarmena berresteko eta behin berretsita zion Herriko Etxe bakoitzak Estatuaren zerbitzu ezberdinei bidali zien. Orain Akitania Berria eskualdeko prefetak baiezkota eman behar du baina, oraingoz, Udaltzaria Partzuergoaren inguruan informazio gehiago eskatu du. Alor juridikotik ez da aparteko arazorik espero, baina prozesua espero baino gehiago luzatu da.



Ez da ekarpenik egin.

### **ZORTZIGARRENA.- Galderak eta iradokizunak.**

Ekaina aldera egiten den Kontseilu Nagusia aurtengoan maiatzaren 3an arratsaldeko 18'00etan egitea proposatu da, hauteskunderen aurretik izan dadin.

Eta deialdi honen helburua bete delarik, Lehendakariak bertaratutakoei eskerrak emanaz batzarraldia amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak direnean, nik Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

IDAZKARIAK